

# Urkiola

**Parke Naturala** **Parque Natural**

Santi Yaniz

## PR-BI 85

**Anbotoko bira**
*Vuelta a Anboto*

www.bizkaia.eus
www.bizkaia21.eus




Bizkaia foru aldundia / diputación foral

URKIOLA PARKE NATURALA / PARQUE NATURAL

Abadiño Elizateko Udala

atxondo

112 SOS DEIAK

**TOKI ALAI**
Interpretazio Zentroa
*Centro de Interpretación*
☎ 94 681 41 55

informazioa eta trackak deskargatu:
*descarga de información y tracks:*

(EU) (ES)

## MARI, ANBOTOKO DAMA / *MARI, LA DAMA DE ANBOTO*

Antzinatik Urkiola inguruko haranetako biztanleek Anboto gailurrerantz begiratu dute bertan, ahozko tradizioaren arabera, Mariren bizileku nagusietakotzat jotzen den leizea baitago. Mari da gure mitologiako jainkosa nagusia eta Lurraren pertsonifikazioa. Leizea Anboto mendiaren ekialdeko hegalean zabaltzen da eta oso erakargarria bada ere, iristeko bideak prestakuntza eta alpinismo tekniken ezagutza maila bat eskatzen du.

Mari bere leizean dagoenean hodei trinkoak estaltzen du Anbotoko gailurra. Izan ere, kondaira askok Dama Euskal Herriko bazter guztietan kokatzen dute. Jakina da aldian-aldian bizilekua aldatzen duela eta horrek eguraldi txarraren pean egotea baldintzatzen duela.




*Desde tiempos remotos los habitantes de los valles del entorno de Urkiola han dirigido sus miradas hacia la cima de Anboto, donde, según la tradición oral, se encuentra la cueva considerada como una de las principales moradas de Mari, la diosa principal de nuestra mitología que personifica la Tierra. Esta cueva se abre en la cara Este del monte Anboto y aunque cuente con un gran atractivo, la ruta de acceso requiere cierto nivel de preparación y conocimiento de las técnicas de alpinismo.*

*Una densa nube cubre la cima de Anboto cuando Mari se encuentra en su cueva. Y es que numerosas leyendas sitúan a la Dama a lo ancho y largo de toda Euskal Herria. Se sabe que cada cierto tiempo cambia de morada y que esto condiciona la exposición a las inclemencias meteorológicas.*

## FITXA TEKNIKOA / *FICHA TÉCNICA*

| | | |
|---|---|---|
| HASIERA | Atxarte | *INICIO* |
| AMAIERA | Atxarte | *FIN* |
| LUZERA | 19 km | *LONGITUD* |
| GEHI. MALDA | 1203 m | *DESNIVEL ACUMULADO* |
| DENBORA (g.g.b) | 6h 30’ | *TIEMPO ESTIMADO* |
| IBILBIDE MOTA | Zirkularra / *Circular* | *TIPO DE RECORRIDO* |




Errepidea edo asfaltozko bidea — 10% Carretera o camino asfaltado
Lur- edo hartxintxar-pista — 80% Pista de tierra o grava
Galtzada edo bidezidorra — 10% Calzada o senda

Ibilbide honetan Anboto mendilerro ikusgarria inguratuko dugu Mariren begirada erneaen pean. Atxarte arroilatik Pol-poleko burdin uretarantz abiatuko gara eta handik Zabalandira, ondoren Atxondo haranerantz galtzada zaharretik jaisteko. Arrazolatik, haran hondotik, zati batez meatze-tren zaharrari jarraituko diogu, eta ondoren utzi eta Artolako pasagunerantz desbideratuko gara, Alluitz eta Astxiki kare-harrizko pusken artean.

*A lo largo de este itinerario rodearemos la imponente Sierra de Anboto bajo la atenta mirada de Mari. Conduciremos nuestros pasos desde la garganta de Atxarte hacia las ferruginosas aguas del Pol-pol y de aquí a Zabalandi, para descender después hacia el valle de Atxondo por una antigua calzada. Desde Arrazola, por el fondo del valle, seguiremos durante un tramo el trazado del antiguo ferrocarril minero, que luego abandonaremos para desviarnos hacia el paso de Artola, entre las moles calizas de Alluitz y Astxiki.*

**MIDE**

| | |
|---|---|
| **1** Inguruak badu bere arriskua / *El medio no está exento de riesgo* | **2** Zalbideko ibilaldia / *Marcha por caminos de herradura* |
| **2** Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak / *Sendas o señalización que indica la continuidad* | **4** 6 ordutik 10ra bitarteko ibilaldia gelditu gabe / *De 6 a 10 horas de marcha efectiva* |

# PR-BI 85

## Anbotoko bira

**km 0** Ibilbideari **Atxarte** haitzartean ekingo diogu, Abadiño eta Urkiola lotzen zituen bide zaharretik. Aparkalekutik **Guenzelai**ra daroan bide estutik igotzen hasiko gara. Ezkerretara **Artola**rako saihesbidea utzi eta pista belartsutik igoko dugu. Tarteka pagoak eta tarteka larreak eta elorriak aurkituko ditugu bidean, alde batera **Amillako iturria** utzi eta berehala **Asuntza muinor**a iritsiko gara.

**km 3,7** Harrobi zahar baten ondotik igaro eta Otxandiorako saihesbidea utziko dugu eskuinean. Handik gutxira Anbotorako saihesbidea aurkituko eta ezkerretara utziko dugu, eta haren magaletatik aldendu gabe **Zabalandi**rantz jarraituko dugu.

**km 6,3** Pistatik jarraituko dugu, ezkerretara, **Andasto**rako saihesbidea aurkitu arte; hau alde batera utzi ondoren, pagaditik jaisten den bide zaharrean barneratuko gara. Errekaundi erreka zeharkatu eta bide harriztatutik jarraituko dugu. Pinudian, teilapea daukan etxetxo baten eta borda txiki baten ondotik igaroko gara; bidegurutze batzuk eta gero auzo-bide asfaltatura iritsi eta handik **Arrazola**ko elizarantz jaitsiko gara.

**km 10,9** Meatze-trenbide zaharraren ibilbidea gaur egun pasealekua izateko egokitu da eta, hari jarraituz, **Santiago**raino jarraituko dugu; auzoa gainditu ondoren ezkerrera egingo dugu **Axpe** auzorantza.

**km 13,5** Elizaren ezkerretik irtengo gara, auzo-bide asfaltatua batetik eta mendi-bide bat baino gehiago hartuz bidegurutze batera iritsiko gara, **Sagastagarai**n. Ezkerreko zagorrezko pistatik jarraituko dugu ezker-eskuineko saihesbideei jaramonik egin barik, **Olarreta**n bidegurutze batera iritsi arte. Guk eskuinerantz jarraituko dugu berehala mendi-bide bat hartzeko; sigi-saga hasten da igotzen, gainean daukagun **Artola muinorantz**.

**km 16,8** Atxarterantz jaitsiko gara.

**km 19** **Atxarte.**





Artolako lepoa
*Collado de Artola*


Pagadia
*Hayedo*



Alluitz

# PR-BI 85

## Vuelta a Anboto

**km 0** Iniciamos el recorrido en el desfiladero de **Atxarte**, por el antiguo camino que unía Abadiño con Urkiola. Comenzamos a ascender desde el aparcamiento por la senda que lleva a **Guenzelai**, dejamos a la izquierda el desvío a **Artola** y ascendemos por la pista herbosa. Intercalamos algunos tramos de hayedo con otros de campas, dejamos a un lado la **fuente de Amilla** y enseguida llegamos al **collado de Asuntza**.

**km 3,7** Pasamos junto a una antigua cantera y después dejamos a la derecha el desvío a Otxandio. Poco después encontramos el desvío a Anboto, que dejamos a la izquierda, y continuamos sin despegarnos de sus faldas en dirección a **Zabalandi.**

**km 6,3** Seguimos por la pista hasta que encontramos, a la izquierda, el desvío hacia **Andasto**. Lo dejamos a un lado y nos internarnos en el antiguo camino que desciende por el hayedo. Cruzamos el arroyo Errekaundi y seguimos por el camino empedrado. Ya en el pinar, pasamos junto a una caseta con tejavana y una pequeña borda y tras varios cruces de pistas llegamos al camino vecinal asfaltado que nos hará descender hacia la iglesia de **Arrazola**.

**km 10,9** Siguiendo el trazado del antiguo ferrocarril minero, hoy en día acondicionado como paseo, continuamos hasta el barrio de **Santiago.** Pasado éste nos desviamos a la izquierda en dirección al barrio de **Axpe**.

**km 13,5** Salimos a la izquierda de la iglesia, por un camino vecinal asfaltado y desviándonos por varias pistas llegaremos a una bifurcación en **Sagastagarai**. Continuamos por la pista de todo-uno de la izquierda, obviando los desvíos hasta llegar a una bifurcación en **Olarreta**. Nosotros seguiremos hacia la derecha para tomar una senda montañera, que comienza a ascender serpenteante hacia el collado de **Artola**.

**km 16,8** Descendemos hacia Atxarte.

**km 19** **Atxarte.**

www.orbela.com